

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2024ko apirilak 19 · 1309 zenbakia

EGURRARI ARIMA ZIZELKATZEN

Teilatuak Fatxadak Sukaldeak
Gremioen koordinazioa etab.



JORGE VEGA S.L.
IGELTSERITZA

Tel. 943 20 83 26 / 607 20 12 23 Tel./Faxa. 943 20 77 34
F. Calbetón, 4 · 3. solaina jorgevega.eibar@gmail.com

gremioen gida



ANTENAK

Ego Gain, 2 - Bac

Tfnoa: 943 12 73 50
www.trinmer.com



TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

ELEKTRIZITATEA

THELECEER
TELEKOMUNIKAZIOAN
ELEKTRIZITATEA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAN
24 orduko
argentziak
610 532 922 www.thelecer.com

ITURGINTZA

PERU FONTANERO

iturgintza eta kalefakzio konponentak



telefonoa: 660522521 whatsapp: 605403596

Termo elektrikoaren aldaketa
Manparen instalazioa

Erradiadoreetako ihesaren konponketa
Komunetako ihesaren konponketa/aldaketa
Etxeko elektrizitate arloa ezagutzen dugu
Destratatzeak / Pintura lanak

AROTZAK



aluminiozko eta PVC-ko
AROTZEGIA

baita toldoak, gortinak, estoreak etabar

Txusta, 30 - 1. eta beheak
Tfnoa: 943 12 13 67 www.ulmar.net

IGELTSEROAK

Eraikuntza
Erreformak
Igeltseritza
irazabal
Jose Maria Irazabal, S.L.

Zure etxea, bulegoa, tailerra...
aldatzen laguntzen dizugu
etorkizun hobeaz
goza dezazun

Azpitain Industrialdea, 3 H Pabilioia
Tfnoa: 943-120108
www.irazabal.net

KRISTALAK

ACHA Kristaldegia
HELBIDE
BERRIA : J.A. GISASOLA, 4 - ac
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
info@cristaleriaacha.com
eta faxa:
943 203 993



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Elkarrizketak, erreportajeak, albisteak... Gure YouTubeko kanalean denetarikoa edukia duzue ikusgai, Eibarko aktualitatearen berri izan dezazuen!

etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA

Urkizu, 11 - 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkarte@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekarria

HIZKUNTZA ARDURA

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gutunen atalerako oharra

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin, eta hala sinatuta kaleratuko dira. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia ere helarazi behar zaigu. Salbuespen modura, identifikagarriak diren elkarte, kolektibo edo taldeen kasuan, horien izenean sinatuta argitaratu ahal izango dira gutunak.

Idatzitako testuek ez dituzte 1.400 karaktere (20 lerro) baino gehiago izan behar, tarreak barne. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero.

Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik. Erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabakitzekeo eskubidea bere egiten du.

Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak postaz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuarte), edo e-mailez, erredakzioa@etakitto.eus helbidera.

Erredakzioa

Hortik esanak



Herri batean baldin badaude bi eskola, eta batean nagusiki etorkin familia diruz ez oso aberatsak eta bestean "herriko" familien ume zuriak badaude, banaketa arriskutsua da publiko espainol doakoa vs euskaldun "itunpekoa". Gabriel Aresti bera ere frankismo sasoiaren umeek euskaraz ikasteagatik kuota bat ordaintzearen kontra zegoen. Eta helduek euskara ikasteagatik euskaltegia ordaindu behar badute, galdetu ahal diote beren buruari zergatik gaztelania edo frantsesa guztiz debalde diren eta euskara ez.

RUBEN SANCHEZ, irakaslea

"Zure onerako ari gara". Horra inperioen lema. Ederto txartatua gure gogamenean. Konkisten izaera erromantikoa sutsu itsatsirik daramagu. Konkistatzailea ez zen gaizki ikusia izan beste orduz, konkistatuaren dohainak iradoki izan dizkio maiteminduari. Konkistatzea hitz seduzitzaileari maitasun-kutsua dario. Gure kulturaren eta izaeraren "estigma" da. Egungo mundializazioa ez da kontu berria, antigoaleko konkista-moldearen eboluzioaren ondorioa da. Askorentzat "ondarea".

MIKEL ASURMENDI, liburu-iruzkingilea

ASTELEHENEAN HAUTESKUNDE ALE BEREZIA

Domekan egingo diren Eusko Jaurlaritzarako hauteskundearen Eibarko emaitzak eta egun horretako nondik-norakoak auzoz auzoko datu eta grafikoetan azaltzeaz gain, alderdietako gure herriko ordezkarien iritziaz ere jasoko ditugu ale berezi horretan.

Betikoari jarraituz, goiz-goizetik ale berezi hori eskura izango duzue ohiko leku eta esblezimenduetan.

Erredakzioa

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

PABONU/FABONU → Eskopeta kainoiak belzteko erabiltzen zen likidoa. Kainoiak belzten ziren lekua edo lantegia ere esan nahi du. "Isidoro Aldeanuak, Arraindi kalia eukan pabonua".

1934

Santa Kurutzeko eskolak

Santa Kurutzeko eskola eta bertako ikasle talde bat. Eskolako fatxadan zegoen armarrarian, Gipuzkoako armarri zaharra (1513-1979) eta Bigarren Errepublikako aldarrikatzeagatik Eibarri eman zitzaion "Hiri" titulua ageri dira.

GURE GIPUZKOA
INDALECIO OJANGUREN FONDOA



Farmaziak

BARIXAKUA 19
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
ZAPATUA 20
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 21
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ASTELEHENA 22
EGUNEZ Barandela (Z. Agirre, 4)
MARTITZENA 23
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
EGUAZTENA 24
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
EGUENA 25
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
BARIXAKUA 26
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekoa	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Victoria Urrutia Eizagirre.** 78 urte. 2024-04-09.
- **Miguel Ajuria Dudagoitia.** 62 urte. 2024-04-10.
- **Juan Jose Araolaza Lahidalga.** 80 urte. 2024-04-11.
- **Cecilia Igartua Arizaga.** 79 urte. 2024-04-12.
- **Cleto Cardo Pablos.** 92 urte. 2024-04-12.
- **Rufo Lariz Iriondo.** 75 urte. 2024-04-14.
- **Jorge Imaz Bolinaga.** 51 urte. 2024-04-15.

Jaiotakoak

- **Carlos Ethan Sernaque Carrasco.** 2024-03-22.
- **Maddi Martinez Crespo.** 2024-04-06.
- **Dylan Lopez Gutierrez.** 2024-04-10.



Zazpi menu berezi dastatzeko aukera Debarrena Gourmet ekimenaren eskutik

Apirilaren 22tik maiatzaren 5era bitartean Debarreneneko zazpi jabetzetan bertako produktuekin osatutako menuak dastatu daitezke, 60 eurotan, Bastida eta Guardiako ardoekin edota jatetxeak erabiltzen duen txakolinaz lagunduta. Mutrikuko Arkugain elkarte gastronomikoan aurkeztu zuten aurreko astean Debarrena Turismoaren ekimena. Menuak eskainiko di-

tuzten jatetxeak Eibarko Baratzegia Gourmet, Elgoibarko Belaustegi Baserri Jatetxea, Ermuko Mendiola Jatetxea, Soraluzeko Txurruka Jatetxea, Mutrikuko Piperren Txokoa eta Pikua Jatetxea eta Itziarko Kanala Jatetxea dira. Menuak www.debarrenaturismo.com webgunean ikus daitezke. Hori bai, edozein kasutan izanda ere, aurretik erreserba egin behar da.

Maiatzaren Lehena Iruñean ospatuko du LABek

LAB sindikatuak 50 urte betetzen dituela eta, aurtengo Maiatzaren Lehena berezia izatea nahi dute; horregatik, Iruñean ospatzeko deialdi nazionala egin dute. Bertan manifestazio eta ekitaldiak gain, egun osoko egitaraua prestatu dute. Eskualdetik bertara joateko autobusak antolatu dituzte: Eibartik 09:10ean irtengo da autobusa, Errebaletik. Buelta 20:00etan izango da (Trinitariosetik). Izena emateko Eibarko LABeko egoitzara joan daiteke, edo mezua bidali j.baranguan@lab.eus helbidera.



Odol-emaileen premia dagoela ohartarazi dute Odol Emaileen Elkartetik

Azken hilabeteetako joeran ez da aldaketarik izan eta, beraz, odol-emaileak behar direla ohartarazi dute Odol-emaileen Elkartetik. Horrela, odola ematera joateko dei egiten diete herritarrei. Hori egiteko bete behar diren baldintzak eta eman beharreko pausoak zeintzuk diren azaldu dizkigute. 18 eta 65 urte bitartekoek eman dezakete odola, beti ere 50 kilo baino gehiago badituzte. Gizonezkoek urtean lau aldiz eman dezakete, eta emakumezkoek hirutan. Horretarako, 15

egunetik behin, Untzagako Jubilatutxan, beheko solairuan dagoen gela atontzen dute odola eman ahal izateko, 16:50etik 20:50era. Odola emateko, lehenik, egunean bertan zita hartu behar da, 08:30etik 13:30era artean, 943 00 78 88 telefonora deituz. Eibarren odola emateko egunak hauek izango dira 2024an: apirilak 25, maiatzak 9 eta 23, ekainak 13 eta 27, uztailak 18, abuztuak 22, irailak 12 eta 26, urriak 10 eta 26, azaroak 14 eta 28, eta abenduak 12 eta 26.



Toribio Echevarria Sarietarako hautagaitzak maiatzaren 16ra arte aurkeztu daitezke

Aste honetan aurkeztu dituzte Eibarko Udalak eta BIC Gipuzkoa erakundeak sustatzen dituzten 34. Toribio Echevarria Sariak Jon Iraola Eibarko alkateak, Laura Espin BIC Gipuzkoako proiektuen zuzendariak eta Vanesa Hortas Ekonomiararen Garapen, Enplegu eta Berrikuntzako Saileko zinegotziak. Ekintzailtza berritzailearen erreferentzia nabarmenetako bat diren sarietan bi kategoria nagusi bereiziko dira: “Startupak eta Enpresa-proiektuak” eta “Enpresa Berritzaileak”. Kategoria bakoitzeko proposamen irabazleek 10.500 euroko diru-saria jasoko dute, eta proiektu horiek garatzeko funtsezkoak diren laguntza-, finantzaketa-, aholkularitza-, mentoretza- eta prestakuntza-programetan parte hartzeko aukera izango dute. Horiez gain, sari bat dago nazioartekotze-bidean laguntza behar duten enpresa-ekimenetara bideratua, eta Eibarko Udalak ematen dituen beste bi sari berezi, “Eibarko Enpresa” eta “Espezia-

lizazio Estrategikoa” izenekoak, herriko enpresa-sare berritzaile eta lehiakorra garatzen laguntzeko. Lehen beste bi kategorietako edozeinetan aurkeztutako hautagaitza bati emango zaio. Eta, bigarrenaren kasuan, kirola-alorreko egitasmoak lehenetsiko dira. Hala ere, Udalak sustatutako beste arlo estrategiko batzuk ere izango dituzte kontutan.

Aurkezpen ekitaldian sari hauen eragina eta garrantzia nabarmendu zituzten: “Azken edizioetan 800 ekimen baino gehiago aurkeztu dira sari hauetara, eta guztira 45 milio euroko inbertsioa egin da”. Sarietarako hautagaiak Euskal Autonomia Erkidegoko startupak eta enpresa-proiektuak izaten dira, berrikuntza zientifiko-teknologikoan ardaztuak.

Kategoria bakoitzean aurkezteko baldintza eta oinarri guztiak www.toribioechevarria.com webgunean kontsultatu daitezke. Hautagaitzak aurkezteko epea maiatzaren 16an amaituko da.



Sarraskiaren kontrako poesia eta musika saioa

Eibarko Gerrarik ez eta Eibar Palestinarekin taldeek “Palestinako sarraskiaren kontrako ahotsak” izenburuko ikuskizun poetiko-musikala antolatu dute eguenerako, Eibarko bonbardaketaren 87. urteurrenean. Arrate Kultur Elkartearen izango da, 19:00etatik 21:00etara, eta, antolatzailerek dioten bezala, mikrofonoa zabalik egongo da parte hartu nahi duten guztientzat.

Gatazka armatuen eraginari buruzko hitzaldia

“Gatazka armatuak, bakea eta garapena” izenburuko hitzaldia emango du Itziar Mujika Chaok martitzenean, 18:30etik aurrera Andretxean. Generoan oinarritutako botere egiturek gerretan eta horien ondorioetan duten eraginaz arituko da, bereziki emakumeengan duten eraginari buruz. Hitzaldia gazteleraz izango da. Mujika EHUKo Nazioarteko Zuzenbide Publikoa, Nazioarteko Harremanak eta Zuzenbidearen Historia saileko irakaslea da. Doktoratu ondoko ikertzailea ere bada, Hegoa Institutuan.



Juanjo Araolaza ...eta kitto! Euskara Elkarteko lehen presidentea hil da

1992an ...eta kitto! Euskara Elkartea sortu zeneko lehen presidentea izan zen Juan Jose Araolaza Lahidalga aurreko astean, apirilaren 11n hil zen, 80 urte zituela. Bi urte egin zituen karguan, eta ondoren Elena Lakak hartu zuen haren lekua. Elkartea sortu berritan, honakoak izan ziren bere adierazpenak: “Inoiz baino gehiago ematen ari zaio euskarari laguntza klase bat, gehienbat diruarekin eman leikiena: Eusko Jaurlaritzatik, eskoletarako, ikus-entzunezkoetan... Baina horrekin ez da nahikoa, kalean ez delako hitz egiten. Ez da beharrik ikusten euskaraz egiteko. Kontzientziazioa lortu behar da eta, horretarako, derrigorrezkoa da presio

soziala, euskal mundutik sortutako presioa, beharrezko hartuemanak euskaraz egiteko. Ea modu horren bitartez sartzen den jendea galdi horretan”.

Zizurkilen jaioa, aita tolosarra eta ama azpeitiarra zituen. Aitaren lana zela eta, Zizurkiletik Elgoibarrera joan zen bizitzera, 11 urte zituela. Zaragozan ikasketak amaitu eta Elgoibarrera bueltatu zen. Han P.M Urruzuno Kooperatibako presidente izan zen Elgoibarko ikastola berriaren eraikuntza garaian. Eibarren, urte askotan aritu zen podologo lana egiten. Euskal Herriko Podologoaren Kolegio Ofizialaren lehenengo Batzordeko partaidea ere izan zen. Goian bego.

LAB sindikatuaren historia biltzen duen dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia

Sindikatuaren 50. urteurreneko ekitaldien barruan, “Eskuz esku. LAB zabaltzen” dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia hartuko ditu Portaleko areto nagusiak egunean, 18:00etan. LAB sindi-

katuaren historia jasotzen duen dokumentala orain dela egun batzuk estreinatu zuten, Bilboko Euskalduna Jauregian, eta orain herriz herri ari dira aurkezten. Sarrera librea izango da.



Errenta aitortpena euskaraz egiteko gonbitea

Urtero bezala, herritarrak Errenta aitortpena euskaraz egitera animatzeko kanpaina abiatu du Eibarren AKEBAIk. Datuei begiratu gero, Foru Ogasunarekin dauzkaten harremanetan euskara erabiltzea hautatu duten eibartarren kopurua handitzen joan da, baina oraindik hobetzeko tarte handia dagoela pentsatzen dute. Hori dela eta, Errenta aitortpena euskaraz egiteko gonbitea egin du Eibarren AKEBAIk. Eman dituzten datuen arabera, 2022. urtean 14.641 eibartarrek egin zuten aitortpena, eta horietatik 1.642 herritarrek (%11) eskatu zuten Foru Ogasunarekin egin beharreko harremanak euskaraz izatea.



LGTBIQ+fobiaren kontrako erakusketa Andretxean

Atzoz geroztik Aldartek (Sexu askatasunerako ikerketa eta dokumentazio zentroak) prestatu duen “LGTBIQ+fobia gorroto delitu eta diskurtsoak” erakusketa bisitatu daiteke Andretxean. Maiatzaren 8ra arte egongo da zabalik.



93 urte eta gero Errepublika gogoan

Espainiako II. Errepublikaren aldarrikapena gogoratzeko ekitaldiak egin ziren domekan Eibarren. IU-Ezker Anitzak eta Euskadiko Alderdi Komunistak, Martxa Errepublikarra egin zuten, Ermutik Eibarrera, eta Sumar koalizioak ekitaldia Untzagan. Eibarko alderdi sozialistak Herriaren Etxeko balkoian bandera igota ospatu zuen eguna, eta Elkarrekin Podemosek, berriz, Urkizun egindako ekitaldian.



**Familien arteko
ALTXORRAREN
BILA badator!**

Maiatzak 10 OSTIRALA
17:15etik aurrera

*Saria
denentzat*

www.eta.kitto.eus



Torrekuan egingo dira gaurko Barixakuan Jolasianeko jolasak

Aurreko barixakuan, eguraldia lagun, Untzagak hartu zuen Barixakuak Jolasian ekimena. Gaur, berriz, Torrekuak hartuko dio lekukoa, bertako parkean antolatuko baititu jolasak ...eta kitto! Euskara Elkarteak 2 eta 8 urte bitarteko haurrentzat, 17:00etatik 18:00etara. Hurrengo barixakuan, apirilak 26, Urkizuko parkean egingo dira ikasturteko azkeneko jolasak. Ekainean, ikasturteari agur biribila emateko, musikaz girotutako jaialdia egingo da. Gora Bihotzak taldeak bisitatuko gaitu aurten ere, ekainaren 13an, Errebalen.



Familien arteko Altxorraren Bila jolaserako izen-ematea zabalik dago

Familien arteko Altxorraren Bila jolasa antolatuko du aurten ere ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Lehen Hezkuntza osoko ikasleentzat eta haien familientzat antolatutako ekintza maiatzaren 10ean egingo da, barixakua. Taldeka eman beharko da izena eta taldeak, asko jota, hamarrekoak izango dira. Familia berekoak edo kuadrillakoak edo lagunak izan daitezke, baina talde bakoitzean 2-4 heldu egon beharko dira, ume kopuruaren arabera. "Untzagan hasiko da jolasa, 17:15ean eta, hor-

tik aurrera, asmatzen joan ahala pista berriak jasoko dituzte helmugara iritsi arte. Amaieran sariak egongo dira parte-hartzailerantz, diote elkartetik. Izen-ematea gaur zabaldu eta apirilaren 30era arte luzatuko da. Horretarako, www.etakitto.eus webgunean dagoen inprimakia bete, 943200918 telefonora deitu edo elkarteko bulegotik pasa daiteke (Urkizu 11 solairuartea). Plaza mugatuak direnez, izena ematen duten lehenengo zortzi taldeek hartuko dute parte ekintzan.



Magia-ikastaroan izena emateko lekua dago

Datorren apirilaren 25erako, eguena, magia-ikastaroa antolatu du helduentzat ...eta kitto!-k. Imanol Ituiño magoak emango du 19:00etatik 20:30era euskara elkartearen egoitzan (Urkizu 11, solairuartea). 16 urtetik gorakoei zuzenduta dago eta lekua badago oraindik ere. Izena emateko www.etakitto.eus webgunean aurkituko duzuen formularioa bete, mezua bidali banaketa.etakitto@gmail.com helbidera edo 943200918 telefonora deitu daiteke. 5 euro balio du (4 euro bazkideentzat). Imanol Ituiñok hainbat sari irabazi ditu eta Gure Zirkuko magoa da gaur egun.

LAN ESKAINTZA

Kultur aniztasun eta elkarbizitzarako teknikaria behar da

ESKATUKO ZAIO

- Hezkuntzarekin eta gizartearekin lotura duten ikasketak (irakaskuntza, gizarte-hezkuntza...)
- Euskara ondo menperatzea, ahoz zein idatziz

ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi erdiko lan kontratua (mugagabea izateko aukerarekin)
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea
- Ordutegi malgua
- Proiektu erakargarria

BALORATUKO DA

- Eibartarra izatea eta errealitate soziolinguistikoa ezagutzea
- Euskalgintzan edo gizarte mugimenduan eskarmentua izatea
- Izaera dinamikoa eta harremanetarako gaitasuna izatea
- Gidabaimena eta kotxea

CVak bidaltzeko epea
apirilaren 28ra arte

elkartea@etakitto.eus



LAN ESKAINTZA

Publizista behar da

ESKATUKO ZAIO

- Publizitate, marketin edo komunikazio ikasketak izatea
- Euskara ondo menperatzea, ahoz zein idatziz
- Lantaldean aritzeko gaitasuna
- Iniziatiba eta enpatia

ESKAINIKO ZAIO

- Lanaldi osoko kontratua (mugagabea izateko aukerarekin)
- 30 urteko ibilbidea duen elkarteko kide izatea
- Ordutegi malgua
- Proiektu erakargarria
- Langiro atsegina

BALORATUKO DA

- Eibartarra izatea eta ingurua ondo ezagutzea
- Publizista lanetan esperientzia
- Sare sozialak menperatzea
- Sormenerako gaitasuna
- Gidabaimena eta kotxea

CVak bidaltzeko epea
apirilaren 28ra arte

elkartea@etakitto.eus



“Egurra zizelkatzeak motibatu egiten nau eta demaseko bakea ematen dit”

DAVID LOPEZ SIMON • Egur zizelkatzailea



Garajea bakea lortzeko eta sorkuntzarako gune bihurtu du David Lopez Simonek. Toki xumea da, baina nahikoa egurra artelan bihurtzeko. Artista eibarrarak egur taillak egitea du afizio, nahiz eta bere lanak profesionalak diren. Izan ere, maitasun handia eskaintzen dio egiten duenari eta, emaitza ikusita, agerikoa da pasioz, pazientziaz eta maisutasunez egiten duela.

Egurrean taillatu zuen lehen gauza gitarra bat izan zen. Harro erakutsi digu lehen lan hori eta, atetik sartu eta parean aurkitu daitekeen ‘Gernika’ koadroaren egurrezko erreplika ikusita, nabarmena izan da gitarra hori egin ondoren izan duen bilakaera. Paulino Larrañagarekin egin zituen lehen pausoak eta, berandu ezagutu bazuen ere, bidea eman zion gaur egun egiten dituen artelanak sortzeko.

Nondik datorkizu egurra taillatzeko zaletasuna?

Txikitan, eskolan, eskulanak egitea asko gustatzen zitzaidan. Hortik abiatuta, egurra lantzerantz jotzen nuen batez ere. Eskura dut egurrarekin egin nuen lehen tailla, gitarra bat. Eskolan egin nuen. Zaletasuna sortuta, egurra lantzen jarraitzeko gogoia nuen eta ekintza hori norekin egin nezakeen begira ibili nintzen. Behin, amak deitu zidan Euskal Jaia egin zela esanez eta bertan Paulino Larrañaga ezagutu zuela. Beraz, berarekin harremanetan jarri nintzen. Maila handiko egur zizelkatzailea izan zen. Tamalez, nahiko berandu jarri nintzen berarekin harremanetan, sasoi hartan nahiko nagusia zelako eta sasoirik onenean ez zegoelako. Dena dela, berarekin hasi nintzen eta

urtebete egon nintzen berarekin ikasten. Bere lokalean sartzen laga ninduten eta, hil zenean, bertako bazkide izatea eskaini zidaten.

Jende gehiago aritzen zen lokal horretan?

Bai, taldetxo bat bazegoen. Denbora batez egon nintzen han, baina gero laga egin nuen eta neure kabuz hasi nintzen lagun baten lokalean.

Beraz, ez zara guztiz autodidakta izan, baina zure bidea aurkitu behar izan duzu egurra zizelkatzen ikasteko?

Hori da. Pena da Paulino berandu ezagutu izana, berarengandik asko ikasiko nukeelako, baina bidean aurkitu ditudan adiskideekin ere asko ikasi dut. Batek modu batera lantzen du egurra, besteak beste modu batera, baina denengandik ikasten duzu zerbait. Oso aberasgarria da elkartruke hori.

Gitarra eta ‘Gernika’ koadroa ikusita, badago aldea!

Bai! Baina tira, egitearen poderioz ikasten duzu egurra zizelkatzen. Askok esaten didate, hain pertsona urduria izanik, ea nola lortzen dudan horrelako lanak egitea. Izan ere, oraindik gehiago findu daitezkeen arren, zehaztasun asko dituzten lanak dira.

Artista bakoitzak lanak bere modura egiten dituela aipatu duzu. Zein da zure estiloa?



Egurrezko piezak eskuz taillatzen ditu David Lopez Simonek. EKHI BELAR

Azken batean, egurrezko tabloia hartzea eta soberan duena kentzea da kontua.

Erraz esaten da! Zein prozesu jarraitzen duzu lanak sortzeko orduan?

Hasieran, zizelkatu nahi duzun irudia etortzen zaizu burura. Adibidez, Arrateko ama. Orduan, lehenengo, zirriborro bat hartzen duzu, marrazki bat; eta gero, egurra prestatzen duzu. Hau da, zein egur erabiliko duzun erabaki behar da, lortu nahi duzun irudiaren edo efektuaren arabera. Egurra aukeratzen duzunean, irudia marraztu eta soberan duen egurra kentzen hasten zara.

Bai, baina marrazkia bi dimentsiotan dago eta zuk hiru dimentsioko lanak sortzen dituzu. Nola moldatzen zara?

Poliki-poliki forma emanez. Marrazkian aurreko alde ikusten duzu, atzekoa ez. Beraz, zizelkatzen zoazen neurrian forma nola eman ikusten joan behar zara. Gero, xehetasunak zure esku geratzen dira, askotan marrazkietan ez direlako gehiegi nabarmentzen. Egia da figura asko ez direla berdin geratzen alde batetik eta bestetik.

“Batek modu batera lantzen du egurra, besteak beste modu batera, baina denengandik ikasten duzu zerbait. Oso aberasgarria da elkatruke hori”

Horrek erakusten du artisautza lana dela, eskuz egin-dakoa, eta ez makina batek.

Hori da. Batzuetan, marrazkia hartzen dut, egurrera pasatu, lanean hasten naiz eta ez dut motibazioarik aurkitzen, ez dudalako aurrerapenik ikusten. Lanaren erdia egiten dudanean, aurrera doala ikustean, oster, demaseko gogobetetzea sentitzen dut.

Zenbat denbora behar izaten duzu pieza bat sortzeko?

Piezaren arabera da hori. Sendagilearengana joaten zaren moduan izaten da: badakizu noiz sartzen zaren, baina ez dakizu noiz amaituko duzun. Ba

tzuetan buru-belarri zaude lanean, beste batzuetan ez duzu motibazio gehiegirik... Amaitu gabe dauden hainbat pieza ditut, noizbait amaituko ditudalakoan.

Lanak zure gogoz hasten dituzu, enkarguak jasotzen dituzu...?

Enkargu gutxi jasotzen dut. Egurra taillatzeaz bizi den jendea egongo da, baina oso gutxi. Niretzat zaletasuna da. Jendeari piezen prezioak aipatzerakoan esaten dizute hortik soldata lortu dezakezula. Bai, noski, baina piezak saldu behar dira lehendabizi eta zaila da. Azoketan egon naiz, erakusketak egin ditut, baina zaila da piezak saltzea.

Zergatik egiten duzu lan hau?

Motibatu egiten nau, asko gustatzen zait eta demaseko bakea ematen dit. Hemen sartzen naizenean lanean kontzentratzen naiz eta arazoak ahazten dituzu. Askotan, denbora labur baterako etortzen naiz eta lau ordu pasa ditzaket bertan, konturatu gabe. Gustora ari zarenean, denbora hegan pasatzen da.

Nolako piezak egitea gustatzen zaizu?

Denetik egin dezaket: figurak, ezkutuak, ispiluak, koadroak... Neure aurpegia taillatzea nahiko nuke, baina egiteko zaila da. Bestetik, enkarguren bat jaso ezkerro, bezeroak nahi duena egiten dut. Batzuek nahiko gauza zailak eskatzen dituzte, baina saiatzen naiz.

Zein egur-mota erabiltzen duzu lanak egiteko?

Sortu nahi dudan piezaren arabera, egur-mota bat edo beste aukeratzen dut. Bestalde, enkargu bat bada, bezeroak erabakitzen duenaren arabera jokutzen dut. Normalean, jendeak zerbait ekonomikoa nahi izaten du, baina ohikoena da egurrik onena ez izatea. Materialean pixka bat gehiago gastatzea gomendatzen diet, piezek egoera onean gehiago irauteko.

Lana egiteko orduan, ez da gauza bera izango egur-mota batekin edo beste batekin lan egitea, ezta?

Ez, ez da gauza bera. Egur gogorrekin figuratxoak egitea gehiago kostatzen da. Egur-blokeak mozteko bakarrik erabiltzen dut makina. Gehien jeta, fresatze-ko makina erabiltzen dut pieza batzuk arbastatzeko. Beste guztia eskuz egiten dut.



“Enkargu gutxi jasotzen dut. Egurra taillatzeaz bizi den jendea egongo da, baina oso gutxi. Niretzat zaletasuna da”

Zenbait erakusketatan eta azokatan egon zarela aipatu duzu, baina zure lanak erakusteko ohitura duzu?

Oso gutxitan egon naiz. Topalekuan erakusketa jarri nuen, Euskal Jaian egon naiz pare bat urtetan, Elorrion ere izan naiz eta baita Ermuan ere. Ez dut ohitura handirik eta, gainera, batzuetan ezetz esan behar izan dut, ez nuelako pieza berririk.

Beraz, norbaitek enkarguren bat egin nahi badizu, nola egin dezake? Izan ere, sare sozialetan ere ez duzu profilik.

Zuzenean nirekin harremanetan jar daitezela. Ahoz ahokoak ondo funtzionatzen du horrelakoetan.

8 milioi euroko inbertsioak Udal Aurrekontuetan

Aurreko asteko eguaztenean onartu zuten azkenean 2024ko aurrekontuak Udalean. Eibarren horretan ez gara lehenak izaten, eta aurreko ere erregu eske izan ditugu beste behin. Jakina, plenoan onartutako saio horretan ez zen inolako ezusterik izan, eta PSE-EE eta EAJ-PNVren botoei esker onartu ziren kontuak, EH Bildu eta Elkarrekin Podemos alderdiek aurka bozkatu zuten bitartean.

Oraingoan 50 milioi euroko langa gainditu du aurrekontuak (50.604.770 euro), iazkoa %7,12an handituz; 2023koa 47.238.430 eurokoa izan zen, horrek aldi berean aurreko urtekoa %5,55ean handitzen zuen bitartean (44.754.510 eurokoa izan zen 2022. urtekoa).

Aipatutako plenoan, Ana Telleria sozialisten bozeramaile eta Hazien-dako buruak azpimarratu zuenez, “aurrekontu hauek azpiegitura, instalazio eta zerbitzu berriak martxan ipintzeaz gain, daudenei eusteko asmoz daude eginak, beti ere herriaren hobebeharez”. Eta inbertsioen arloan, “Ubitxa kalea San Kristobal auzoarekin lotzen duten igogailu biak, Torrekuako anbulatorioaren zaharberritzea (Amañako edade-tuentzako etxe berria egiteko) eta Txonta auzoan dagoen eraikinaren zati handi baten birgaitze energetikoa”, nabarmendu ziren, horiek guztiak Next Generation funtsek finantzatutako proiektuak izanik. Josu Mendicute EAJ-PNVren bozeramaileak euren proposamene-tan “herriko auzoak biziberritzeko



PSE-EEko eta EAJ-PNVko zinegotzien botoekin onartu ziren 2024ko Udal Aurrekontuak.

ahalegina” egin dutela aipatu zuen, horretarako “aparkaleku perimetraletan jarritako atentzioa” nabarrituz: “Legarrekoa arrakastatsua izan da, eta bide beretik jarraitzeko asmoa dugu Jardíñeta, Ubitxa eta Amañan”.

EH Bildu eta Elkarrekin Podemos taldeen ordezkariak onartutako aurrekontuak kontinuitatzat jo zituzten, “jendeak eskatzen duenari jarraitzen ez dietenak”. Arantza Mata,

EH Bilduren izenean, pertsonak ez jartzea aurrekontuen erdigunean salatu zuen, “zaintza arloko politika feministak eta superfizie berdeen aldeko jarrerak alboratu” dituztela gaineratuz. Bere iritziz, “hiritarrek parte hartu beharko lukete erabakiak hartzerakoan eta, obretan hainbeste diru gastatzen badugu, ezin diegu gastu sozialei behar den bezala erantzun”. Elkarrekin Podemoseko Isabel Fernandez Pejenautek jasan



Barrena kaleko Hijos de Gabilondo ingurunea birgaitzeko eta eraldatzeko asmoa dago.

izan duen bazterketa salatu zuen, ezertarako ez dutela kontuan hartu azpimarratuz. Gainera, “obretan 700.000 euro gehiago inbertituko direnean, Ingurugirorako diru gutxiago” dagoela esan zuen, azken arlo horretan “Durangoko biztanle bakoitzak Eibarkoaren bikoitza ipintzen duela” nabarmenduz.

Diru sarrerak

9. Kapituluari dagokion zenbatekoa kontuan hartu gabe, aurtengo aurrekontuen zirriborroak ia 39 milioi euroko dirusarrerak aurreikusten ditu, iazkoak baino ia bi milioi euro gehiago. Gehikuntza hori, funtsean, aurreikusitako Foru Funtzari zor zaio; zenbatekoa 2023rako aurreikusitakoa milioia eta 300.000 eurotan handitzen du, 4. Kapitulan (Transferentzia arruntak) jasotzen denez. Foru Funtzak Gipuzkoako

udalerrietzat duen garrantziaren adibide da Eibarren jasotako diru sarrera guztiaren %50era iristen dela. Bestalde, ia hamarkada bat izoztuta egon ondoren, tokiko zergak igo dira oraingoan.

Zuzeneko zergetan, diru-sarreraren 1. Kapitulan, iaztik hona 37.650,22 euro bakarrik jaitsi dira. Zeharkako zergak jasotzen dituen 2. Kapituluako sarreretan, iaz baino 250.000 euro gutxiago izango dira “oraingoan Estaziñoko bigarren fasetik harago etxebizitzak sustatzeko jarduerarik ez delako izango”. Tasa eta bestelako diru-sarreraren 3. Kapitulan 300.000 euro gehiago jasoko da; arlo horretan iagoera nagusiena iaz eman zen, %60a iritsiz, “Kirol Patronatua udal-egituran sartu zelako”. Joera goranzkoa bada ere, oraingoan apalagoa izango da. Transferentzia arruntan 4. Kapitu-

luaren barruan, 2023. urtearekin konparatuta, %5,84ko gehikuntza aurreikusten da. 5. Kapituluak Udalaren Ondare-sarrerak jasotzen ditu udal hiri-finken errentamendu kontzeptuan (desagertutako IMESA Udal Higiezin Agentziak sustatutako garajeak, Unbeko tabernako kafetegia, lpurua kiroldegiko garajeak... eta horko kanonak eta gordailuen interesak) eta, iazkoarekin alderatuta, 40.000 euro inguru gehitu da. 6. Kapituluako inbertsio errealak eta bestelako diru-sarrerak besterentzekoak, hirigintza-jarduketetatik eratorritakoak barne, 50.000 euroko gehikuntza izan dute. 7. Kapituluak, 835.600 eurorainokoa, maila goragoko erakundeetatik datozen kapital-transferentzietatik datokie, oraingo honetan Eusko Jaurlaritzatik eta Gipuzkoako Foru Aldunditik datozen dirulaguntzak.

Gastuen arloa

Langile-gastuak guztizko gastuaren herena dira (16.474.934,97 euro), eta funtzionamendu-gastuek, aktiboek eta finantza-pasiboek marniobratzeko tarte txikia uzten dute, nahitaez betebeharreko kapituluak izanik. Aurtengo ekitaldia erabakigarria izango da bi kontuengatik: alde batetik, “funtsezkoa delako abian jarritako Next Generation funtzen bidez finantzatutako proiektuei ekitea eta haiek egituratzea”; eta, bigarrenik, Debarrena es-

SARRERAK	2022 urtea	2023 urtea	2024 urtea
1) Zuzeneko zergak	8.006.100,00	7.806.100,00	7.768.449,78
2) Zeharkako zergak	500.000,00	550.000,00	300.000,00
3) Tasak eta zergak	2.912.784,00	2.531.708,48	2.839.352,88
4) Transferentzia arruntak	23.857.756,36	25.095.929,62	26.293.909,74
5) Ondare sarrerak	157.208,00	140.013,18	179.531,94
6) Inbertsio errealak besteren.	500.000,00	695.000,00	744.057,39
7) Kapital transferentziak	320.581,65	200.077,03	835.598,39
8) Finantza aktiboak	36.800,00	14.200,00	14.200,00
9) Finantza pasiboak	8.463.280,68	10.205.402,30	11.629.670,58
GUZTIRA	44.754.510,69	47.238.430,61	50.604.770,70

Foru Funtsetatik jasotako diru sarrera guztiaren %50era iristen da

GASTUAK	2022 urtea	2023 urtea	2024 urtea
1) Pertsonal gastuak	14.888.488,96	15.552.243,41	16.474.934,97
2) Gastuak ondasun/zerbitzuak	15.115.523,02	16.454.102,38	18.040.938,04
3) Finantza gastuak	45.100,00	75.100,00	100.100,00
4) Transferentzia aruntak	5.928.927,60	6.670.413,99	6.645.820,88
5) Kreditu globala eta beste	00,00	00,00	250.000,00
6) Inbertsio enesak	7.427.021,11	7.370.803,00	8.017.685,81
7) Kapital transferentziak	604.250,00	677.606,29	637.129,46
8) Finantza akzioak	45.200,00	40.200,00	40.200,00
9) Finantza pasiboak	720.000,00	397.961,54	397.961,54
GUZTIRA	44.754.510,69	47.238.430,61	50.604.770,70

Langile-gastuek guztizko gastuaren herena jarraitzen dute izaten

kualdea Lehenatasunezko Jarduketan Eremu (LJE) izendatzearen ondorioz, "Jaurlaritzak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak funtsak bideratuko dituztelako (gaur egun 24.000.000 eurotan kuantifikatuak, baina zenbatekoa handiago izatea aurreikusten da), eskualde honetako udalerriok proiektu traktoreak gauzatzeko".

Inbertsio errealean kapitulua, egindako aurrekontu-zirriborroan, 7.056.685,81 euroraino igo da, 2023ko partida 350.000 eurotan handituz. Aurreikusten diren inbertsioak honakoak dira: Torrekua-ko anbulatorio zaharra birgaitzeko obrak egiten hasi, jubilatuentzako gizarte-zentro berria bertan kokatzeko; iaz hasitako Bustinduitarren kalearen berrurbanizazioa amaitu; Arragueta kalea berrurbanizatzeko lanekin hasi; Barrena kaleko Hijos de Gabilondo ingurunea birgaitzeko eta eraldatzeko obrei ekin; Mutiola berrurbanizatu; eta Jardiñetako aurreneko igogailuaren eraikuntza martxan jarri.

Lanak ikastetxeetan

Aurrekotik aparte, landa-azpiegiturarako partida 350.000 eurokoa izango da, Andirao elkartearekin hartutako konpromisoa betetzeko. Urtero bezala, 110.000 euro inguru erabiliko dira ikastetxeek eskatutako obra garrantzitsuak egiteko: San Andres, Urkizu eta Amañan egingo dira lanok. Eta ia 145.000 euro

inbertituko dira Eibarko Klimaren eta Energia Jasangarriaren aldeko Ekintza Plana betetzen joateko: San Andres, Urkiko Andra Mari eta Amañako ikastetxeetan.

Bestalde, Pagaegikorta lursaila erosi ondoren, Ingurumeneko aurrekontua 542.000 eurokoa da ekitaldi honetan. Euskararen erabilera eta irakaskuntza sustatzeko egindako inbertsioak milioi bat euroko langa gaitu du, aurrekontua iaiztik 40.000 euro handituz (1.032.373,94). Kirol Patronatua udal-egituraren sartzeko prozesua osatuta eta udal kirol-instalazioen (Ipurua eta Orbea kiroldegiak, Unbe kirolgunea eta Astelena frontoia) kudeaketa eta mantentze-lana Uda-

laren gain hartuta, kontu hauetako Kirolarloan lau milioi euro inguruko aurrekontua izango du

Gizarte-babesaren atalari dagokionez, udal-arlo horretako programa guztiak batuz gero, ia 5 milioi euroko kopurura heltzen dira gastuak. Genero-berdintasuna sustatzeko 464.000 euroko aurrekontua jasotzen da. Bestalde, Garapen ekonomikoa. Enplegua eta Berrikuntza Sailaren programa guztien aurrekontua, soldadak kenduta, ia ez da aldatu, 2,9 milioi euro inguruko baina; horrela, 750.000 euro baino gehiago bideratuko dira enplegua sustatzeko. Bestalde, Enpresen Garapenerako eta Berrikuntza Programaren aurrekontua 1,4 milioi euro da.

Kulturara bideratutako aurrekontuari dagokionez, ekitaldi honetan ia 4 milioi eurokoa izango da, 2023an baino apur bat txikiagoa. Eta Gazteria arloaren aurrekontuak "goranzko joera nabarmenean jarraitzen du: 2023an 130.000 euro handitu bazen 2022arekin alderatuta, ekitaldi honetan beste 140.000 euro gehiago izango dira gehituko direnak, 775.000 euroraino helduz".

EAJ-PNV udal taldearekin izandako negoziazio-prozesu baten ondoren, sartutako zuzenketak 1.357.250 eurokoak izan dira, "hainbat jardueraren eremutan eragina duten proiektu eta neurriekin, hala nola azpiegituren alorrean, aparkalekuan, kulturean, kirolean edo hiriko elkarre-arean".



Arragueta kalea berrurbanizatzeko lanekin hasiko dira.

Gorputza mogidu eta Eibar ibilixan ezagutzeko aukera

Jarduera fisikoa erregularitasunez egiteko eta belaunaldien arteko gizarte-harremanak sustatzeko programa da Ibilixan. Horretarako, hilean birritan, ambulatorio paretik abiatuta, Eibarko txoko ezberdinak ezagutzeko irteerak egitea proposatzen dute, taldean, monitore batek lagunduta.

Informazio gehiago webgunean:



Ibilixan programa Eibar Mogidu ekimenaren barruan kokatzen da. Mogidu Eibarko Udalaren kirol sailak eskaintzen duen jarduera fisikoaren doako orientazio zerbitzua da, eta erabiltzaileei laguntzea eta aholkuak ematea du helburu, bizimodu aktiboagoa eta osasungarriagoa izan dezaten. Zerbitzua jarduera fisiko baxua duten pertsoneri dago zuzenduta bereziki, patologiarik izan edo ez, eta adina, egoera funtzionala edo egoera sozio-ekonomikoa edozein dela ere.

2018ko azaroan Jarduera Fisikoaren Orientazio Zerbitzua eratu zen, «Eibar Mogidu» izenarekin. Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, jarduerarik eza hilkortasunaren laugarren arrisku-faktorea da mundu mailan, hipertentsioaren, obesitatearen eta tabakismoaren atzetik. Herritarren osasuna eta ongizate orokorra hobetzeko helburuarekin sortu zen ekimen hori, aktibo ez dauden eta sedentarioak direnei jarduera fisikoa egunerokoan txertatzen laguntzeko.



Kimberly Lopez de Aretxaga da zerbitzua eskaintzeaz arduratzen den jarduera fisikoko teknikaria eta astean birritan eskaintzen du aurrez aurreko arreta, Astelena frontoian duten egoitzan: martitzenetan 11:00etatik 17:00etara, eta barinakuetan 09:00etatik 13:00etara. Dena dela, informazio gehiago izan edo berarekin harremanetan jartzeko, 688 724 174 telefonora deitu edo mogidu@eibarkirola.eus helbidera idatzi daiteke.

Ongizate integrala bilatu

Hain zuzen ere, eta Mogidu ekimeneko atal bat izanik, Lopez de Aretxaga arduratzen da Ibilixan zerbitzua eskaintzeaz ere. “Oso profesional prestatua da”, esan digute Eibar Kirolatik. “Fisioterapeuta da eta Kirolaren eta Jarduera Fisikoaren Zientzietan lizentziaturak egin ditu. Beraz, gaian oso aditua da”, gehitzen dute.

Ibilixan programaren helburua sedentarismoa ekiditea, eibartar guztiengana iristea eta hauek ak-



Bi astetik behin egiten dituzte ibilaldia, barixaku goizetan, anbulatorio paretik hasita.

tibatzea, bizitza aktiboa sustatzea eta ongizate integrala bilatzea da. “Ez dugu ongizate fisikoa sustatu nahi bakarrik, baizik eta soziala eta psikologikoa ere, sozializazioa sustatzen dugulako”, esan digute programaren arduradunek.

Zerbitzua doakoa da, eta Mogidu ekimeneko erabiltzaileei eta Eibar Kirola txartela dutenei dago zuzenduta. Horrela, izena eman nahi izanez gero, teknikariak@eibarkirola.eus helbidera idatzi daiteke. “Ez dugu mugarik jarri goitik, momentuz ez dugulako izen-emate larregirik jaso; beraz, edozeinek eman dezake izena, baina parte hartuko dutela abisatzea komenigarria da, gu geu antolatzeko”, esan digute Eibar Kiroletik.

Ekainera arte

Irteerak bi astetik behin egiten dira, barixakuetan, eta anbulatorio paretik hasten dira, Toribio Etxebarria kaletik. Parte-hartzaileak goizeko 10:00etan biltzen dira bertan eta, “beroketa txiki bat egin ondoren”,

ordubete eta ordu eta erdi inguruko ibilaldiak egiten dituzte handik abiatuta. “Batzuetan, herrian dauden parke osasungarrietan geldialdiak egiten dituzte, mobilitate artikularra, oreka eta beste hainbat arlo lantzeko”, esan digute.

Urritik ekainera arte eskaintzen den zerbitzua da eta, ondorioz, gaurkoa kontatuz gero, bost irteera geratzen dira ikasturtea amaitu baino lehenago: apirilak 19; maiatzak 3, 17 eta 31; eta ekainak 14.

Ibilbideei dagokienez, <https://www.eibarkirola.eus/eu/ibilixan-ibilbideak/webgunean> ikusi daitezke egiten dituzten ibilbideak. “Gero, egunaren edo eguraldiaren arabera, bata edo bestea egiten dute”, esan digute Eibar Kiroletik. Kokatze aldera, herrian seinaleekin markatuta dauden ibilbideak dira, beraz, ez dago galtzeko aukerarik. bidegorritik, Amañako pasealekutik, bariantetik eta bestelako pistetatik. “Ibilaldia amaitutakoan luzaketa-ariaketak egiten dituzte borobilean”, diote Eibar Kiroletik.

Jarduera Eibar Mogidu ekimeneko erabiltzaileentzat eta kirol txartela dutenentzat da

Jarduera fisikoa sustatzeaz gain, sozializazioa ere bultzatzen du Ibilixan ekimenak

“Bake Ituna 1996an sinatu zen, baina estatu-biolentzia jasaten duen herrialdea izaten jarraitzen dugu”

CRISTINA CHIQUIN • Fotokazetaria



Guatemalako emakumeek jasaten duten indarkeria salatzen du, besteak beste, bere lanetan Cristina Chiquin fotokazetariak. Erdialdeko Amerikako herrialde horretako emakume fotokazetari bakarrenetakoa da eta bere lanak, zeresana emateaz gain, inspiraziorako balio die bertako emakumeei. Orain, Lagun Artean GKE-ren eskutik, gurean izango dugu aste batzuen buruan.

Cristina Chiquin Euskal Herrian izango da apirilaren 24tik maiatzaren 10era. Horrela, bere bisita aprobetxatuz, apirilaren 25ean, 18:00etan, Andretxean, ‘Bilaketa. Justizia soziala’ izenburua duen sormen-tailerra eskainiko du Lagun Arteanek antolatzen duen Ikasgune Feministan; eta maiatzaren 5ean, 18:30ean, Andretxean baita ere, hitzaldi-solasaldia eskainiko du ‘Emakumeen aurkako indarkerien continuum-a Guatemalan, barne gatazka armatutik gaur arte’ izenburuarekin, non ‘La busqueda’ izeneko bere liburua izango duen ardatz.

Zertan arituko zara Euskal Herrira egingo duzun bigaia honetan?

Batetik, nire argazkilaritza lana biltzen duen liburua aurkeztuko dut, ‘La búsqueda’ izeneko; eta bestetik, Guatemalan bizi den egoerari buruzko hitzaldiak eskainiko ditut, fotokazetaritzaren ikuspegitik. Horrez gain, argazkilaritza-tailerra ere eskainiko dut.

Nolako liburua da ‘La búsqueda’?

Hamar urtetako lana islatzen da bertan. Justizia-prozesuak, feminizidioak eta beste hainbat gai dokumentatu ditut bertan argazkien bitartez. 2019an argitaratu nuen lehen edizioa eta 2022an bigarrena. Lehenengo

edizioan, Guatemalako genozidioaren inguruko justizia-prozesuetan ibili den Sara Alvarezek, akademiko maiek eta idazle guatemalarek idatzi zuten. Bigarrenean, ostera, biktimen familiarrek hartu dute hitza. Argazkien bitartez lekukotasuna ematen dut, baina eurak dira protagonistak. Justizia lortzeko borrokatu dute, eta batzuek lortu dute eta beste batzuek ez. Liburuan gerra eta gerra ondo azaltzen dira. Hau da, memoria ariketa egiten da eta, era berean, gaur egun bizi dugun biolentzia azaltzen da.

Fotokazetari bezala nolako lana egiten duzu?

Guatemalako emakumeek egiten diharduten justizia-prozesuak dokumentatzen ditut, batez ere: memoriarekin zerikusia duten kasuak, gerra, gaur egungo biolentzia, emakumeen eskubideak...

‘Nuestra memoria, nuestra verdad’ izeneko bloga sortu zenuen aspaldi. Gai horiek lantzen dituzu bertan, ezta?

Bloga ez dago oso eguneratuta, baina bertan aurkitu daitezke genozidioaren epaiketekin, gerran gertatutako sexu-erasoekin eta desagerketekin zerikusia duten kasuak, besteak beste. Dena dela, nire Instagrameko kontuan lan gehiago aurkitu ditzakezue.

Nolako lana izan da zuretzat dokumentazio hori guztia jasotzea?



Cristina Chiquin fotokazetari guatemalarrarekin bi saio eskainiko ditu Lagun Artean GKE-ak.

30 urte inguruko gatazka armatuaren ondoren bake-ituna sinatu eta gero, bizirik irten ziren biktimek justizia-prozesuak aurrera eraman zituzten. Kasu publikoak dira, baina dokumentatzeko oso zailak, bai segurtasun aldetik bai sortzen dizun zirrarenengatik. Fotokazetari bezala egiten dugu lan, baina horrelako kasuek barrenean eragiten gaituzte, gure herrialdeak bizi izan duen errealitatea delako. Militarrek eta gerra finantzatu zutenek botere-espazioak izaten jarraitzen dute Guatemalan, tamalez. Batzuetan zaila da lanak aurrera eramatea mehatxatu egiten zaituztelako, zure lanaren ospea zikintzen dutelako edo justizia-prozesuen sona belzten dutelako. Genozidioaren epaiketen harira, herrialdean borroka mediatikoa egon zen genozidiorik egon ez zela esanez, beste batzuek baietz, egon zela, esaten zuten bitartean. Nik, fotokazetari bezala, ezin dut errealitate hori ukatu, biktimak hor daudelako eta gertatutakoa kontatzen duten bizirauleak daudelako. Beraz, beti da zaila lan egitea, baina garrantzitsua da lan hori egitea.

Zaila zein zentzutan, zehazki?

Nire kasuan, adibidez, maila pertsonalean. Esan izan didate mina dela nire marka. Hau da, galdetu didate ea

“Militarrek eta gerra finantzatu zutenek botere-espazioak izaten jarraitzen dute Guatemalan, tamalez”

zergatik dokumentatzen ditudan horrelako gauzak bakarrik, mingarriak badira. Gogorra da ikerketetan hain murgilduta ez dauden lagunek hori esatea. Izan ere, ni neu, argazkilaria bezala, gertatzen ari denaren lekukoa besterik ez naiz eta nire lanaren bitartez justiziaren alde egiten dutenei lagundu besterik ez diet egiten. Herrialde honetan oso beharrezkoa da borroka hori, iraganean gertatutako eta gaur egun oraindik gertatzen diren ekintza biolentoak berriro ez errepikatzeko, batez ere emakumeen artean eta indigenen komunitateetan. Lan zaila den arren, atsegina da aldi berean.

Elkarrizketa osoa
gure webgunean



Atsegina zergatik?

Emakumeen indarraren eta indar komunitarioaren lekuko izateko aukera ematen dizulako. Eredugarria da. Izan ere, biktimak ez dira biktima bakarrik; paradigmatik aldatzeko eta belaunaldi berrientzat justizia-prozesuak zehazteko borrokan diharduten protagonistak dira. Prozesu horiei esker, gaur egun emakume askok sexu-indarkeriak salatu ditzakete, adibidez. Hala ere, oraindik ere justizia oso zaila da herrialde honetan; lehen esan bezala, botere ustelek, genozidek eta Giza Eskubide urratzaileek espazioak izaten jarraitzen dituztelako botere-espazioetan.

Zuk zeuk mehatxuak jaso dituzu zure lana egiteagatik?

Ez dakit mehatxu zuzenik jaso dudan, baina emakume guatemalarrak izanik beti sentitzen naiz mehatxatuta, egunero kalera irteten den edozein emakume guatemalarrak bezala, ez baitakigu gauean etxera itzuliko garen. Batzuetan zenbait gauza gertatu izan dira, baina zure lanean buru-belarri zaudenean ez zara gauzetaz ohartzin. Nik jasotako dokumentuak oso gogorrek dira, herrialdean bizi izan diren gertakizun gogorrek dira, baina kazetarioi gertatzen zaigu horrelako kasuetan murgiltzen garenean ez dugula pentsatzen guri ezer gertatu ahal zaigunik. Egia da zerbait gertatzen zaigula, baina agian ez zuzenean. Herrialde batek jasaten duen genozidioak guztioi eragiten digu, nik egunero eta uneoro bizi dut biolentzia (kalera irtetea, taxian edo garraio publikoan igotzerakoan...), mundu guztiak bizi duen bezala; baina, biolentzia hori hainbeste normalizatu dugu, ez dugula kuestionatzen.

Lagun Artean GKE-ren bitartez Guatemalan gertatutakoa eta gertatzen ari dena ezagutzeko aukera izan dugu.

Besteak beste, zuk aipatutako mugimenduak, borroka eta abar. Zuk zeuk nola bizi dituzu borroka horiek?

Gertatu denaren eta gertatzen ari denaren aurrean, erreakzio bat dago etengabe. Justizia-prozesuak ez dira oraindik amaitu. 2013an genozidioaren inguruko epaiketa egon zen eta gehiago etorri dira ondoren. Justizia-prozesu asko dago martxan (desagertekin, sarraskiekin... zerikusia dutenak), eta indigenen komunitateek edo



“Herrialde batek jasaten duen genozidioak guztioi eragiten digu, baina normalizatu egin dugu eta ez dugu kuestionatzen”

bestelako herritarrek prozesu berri gehiago abiatzen dihardute gaur egungo biolentziaren ondorioz. Izan ere, emakumeen aurkako biolentzia eta sexu-indarkeria ez dira Bake Itunaren ondorioz desagertu. Ituna 1996an sinatu zen eta oraindik ere estatu-biolentzia asko jasaten duen herrialdea izaten jarraitzen dugu, batez ere indigenen komunitateetan. Arrazismo asko dago oraindik. Era berean, mundu guztian gertatzen den bezala, matxismo asko dago. Eta, bestalde, sistema kolonialari eusten zaio, komunitateei ondare naturalen jabetza kentzen zaielarik. Beraz, bakea sinatu zen, baina herrialdean borroka-prozesuek aurrera jarraitu dute lurralderik ez galtzeko.

“Euskararen sozializazioa eta transmisioa” mintegia maiatzaren 8an izango da

2024ko mintegiak berritasun eta sorpresaren bat ere izango ditu aurten. Sorpresaren berri emango ez badugu ere, berritasun moduan aipatuko dugu aurten aurrez-aurrekora itzuliko dela, nahiz eta bidez ere jasoko den. Izan ere, ...eta kitto!ko arduradunen hitzetan “hartu-eman zuzenak elkarlana eta sinergietarako bideak zabaltzen ditu eta gure mintegiak badu xarma hori ere, gertu-gertukoa da, giro lasaia duena, oso lagunartekoa. Parte-hartzaile fidelak ditugu eta arraroa da bertara datorrenak ez errepikatea”.

Beste berritasun bat kokapena da, izan ere, aurten SD Eibarreko prentsa aretoan izango da. “Armeria Eskolako Aretoan egin izan da azkeneko urteotan, baina eskolan obretan dabilta eta SD Eibarrek eskaintza egin zigun euren instalazioetan egiteko, eta guk pozarren onartu! Eskerrak eman besterik ezin dugu egin, bai Armeria Eskolari zein SD Eibarri. Leku batean zein bestean elkarlanerako prestutasun osoa topatzen dugu beti eta biak dira ondo egindako lanaren eredu”.

Mintegiak bi atal izango ditu eta primerako hizlariak hartuko dute parte. Lehenengo zatia teorikoagoa izango da, ikerketa, tesi eta azterketa-lanen emaitzak eta on-



Euskararen sozializazioa eta transmisioa XIV. MINTEGIA

torioak aurkeztuko dizkigute Jaime Altuna (EHuko irakasle eta ikerlaria), Garazi Sanchez (EHuko NOR taldeko ikerlaria) eta Gari Goikoetxeak (Tolosako euskara teknikaria eta ikerlaria). Euskarak aisialdian edo esparru ez formalean duen lekua aztertuko dugu (bereziki gazteen kasuan).

Bigarren zatian Nafarroara begira jarriko gara, oztopoak handiagoak diren lurraldera, bertako praktika on interesgarrien berri jasotzeko Ibai Sueskun (Errigora eta Agerraldia) eta Esther Lakastaren (Dindaia Fundazioa) eskutik.

Mintegia euskara elkarteetako kide, udaletako euskara teknikari, aisialdi taldeetako ordezkari, irakasle etabarri zuzenduta dago, baina edonor da ongietorria.

Maiatzaren 8an

SD EIBAR KE-aren
prentsa aretoan

08:45: Materiala jaso

08:55: Ongietorria eta agurra

09:10: **Hizkuntzaren funbulistik. Adin, genero eta hizkuntzaren arteko orekak eta desorekak”**

Jaime Altuna, EHuko irakasle eta ikerlaria.

10:15: **“Gazteen online kontsumoak”**

Garazi Sánchez, EHuko NOR ikerketa taldeko ikerlaria.

11:00: **“Euskararen geografia berria”**

Garikoitz Goikoetxea, Tolosako Udaleko Euskara eta Hezkuntza Saileko buru eta ikerlaria.

11:45: ATSEDENALDIA

12:20: Begirada bat Nafarroara

12:25: **“Agerraldia, euskara plazara”**

Ibai Sueskun, Errigora eta Agerraldiko kidea.

13:00: **“Aisialdia eta euskara, hori gara gu”**

Esther Lakasta Perez- Itzarbe, Dindaia Fundazioko teknikaria.

BAZKARIA (aukeran): IPUR SAGARDOTEGIAN

www.etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus
943 20 09 18

Izena emateko



antolatzailea

eta kitto!
euskara elkarte

laguntzaileak



kolaboratzailea





JOSU AGIRRE

Teknikaren magia eta magiaren teknika

1997, 1998 eta 1999. urteetan gure herrian oraindik bi zinema areto pribatu martxan zeuden: Unzaga eta Rialto. Garai hartan ikaslea nintzen eta, poltsikoan diru pixka bat izateko asmoarekin, uztaila eta abuztua bitartean zine areto horietako makina-operadoreen ordezkapenak egiteko aukera sortu zitzaidan.

Amañako Parrokiako zinean aitarekin operadore lanak ikasi ondoren, nahiko erraz egin zitzaidan Unzaga eta Rialtoko proiektoreen oinarrizko funtzionamenduaz jabetzea eta aparatua erabiltzeko gai izatea. Gaur egun Kultu tabernako komedorean apaingarri moduan dagoenaren antzekoak ziren manejatutako behar nituen proiektoreak.

Oinarrizko *funtzionamendua* ikasi nuela esan dut, eta hala zen. Nahiz eta proiektzio osoan zehar han egon behar nintzen, behin aretoko argiak itzali eta proiektorea martxan jarrita, nolabait aspektu *teknikoa* amaitutzat ematen nuen. Hortik aurrera atentzioa pelikulan jartzen nuen.

Astelenetik domekara, eguaztenak kenduta, pelikula bakoitzak hamalau emanaldi zeuzkan. Horrek suposatzen zuen hamalau aldiz tragatu behar izan nituela kakaren hurrengoa ziren film batzuk:

Armageddon, Anaconda edo Godzilla... banuen meritua!

Aldiz, uda batean Benito Zambranok zuzendutako “Solas” film eder eta hunkigarria ematea egokitu zitzaidan Rialton. María Galiana eta Ana Fernándezen interpretazio itzelek espektadoreen bihotz barrenak ederto mugiarazten zituzten.

Horrela, “Solas” eman behar dut gaueko sesio batean, eta aita datorrit bisitan. Ia hutsik zegoen aretora jaisten gara -aita eta biok “solos”- eta segituan hasten zait gai teknikoekin: *enkuadrea, soinua, pantaila, argitasuna, kontrastea...* nola liteke magia hutsa zerion artelan hura aurrean izan eta gizon hau hain kontu arrunt eta prosaikoekin hastea!

Gerora ikasiko nuen. Egiazko magia sortzeko ezinbestekoa dela aspektu artistikoa eta teknikoa ere uztartzea.

Pasa den zapatu arratsaldeko Idoia Asurmendiren kontzertuan magia gertatu zen Coliseon. Amaieran, eszenatokitik eskerrak eman zien Idoiak “han goian dauden” teknikariei, proiektzioko kabina seinalatuz.

Nire semeak orduan:

- “Aitxa, eta Walter?”

- “Walter oraindik gorago dago, maitia”

Ezustean, Walter Tuzzeok, magia sortzen zekien bihotz handiko teknikaria eta laguna, beste behin ere bihotz barrena ederto mugiarazi dit.

“Ezustean, Walter Tuzzeok, magia sortzen zekien bihotz handiko teknikaria eta laguna, beste behin ere bihotz barrena ederto mugiarazi dit”



Eider Agirre gimnastak jubenil mailako Espainiako txapela jantzi du

Eibartarra bada ere, Zaldibarko Olazarmendi klubarekin lehiatzen duen Eider Agirrek Castellón jokatutako Oinarri mailako Espainiako txapela jantzi zuen aurrekoan. Probinzia guztietako 1.600 kirolaririk gora bildu zituen gimnasia erritmikoko ekitaldian, Eider Agirre jubenil mailan jardun zuten beste 130 aurkariei nagusitu zitzairen, “mazekin egin zuen akatsik gabeko ariketari esker”. Itsaso Zubia eta Laura Carrillo bere prestatzaileek eibartarrak azken aldia egindako lana azpimarratu zuten, “oso denboraldi zailari aurre egin ondoren”. Zaldibarko taldea 2021ean hasi zen maila nazionalean lehiatzen eta Castellóko Oinarri Txapelketan lau ordezkari izan ditu eta, Eiderrekin batera, Hodei Rivas ermuarrak ere urrezkoa irabazi zuen.

Gipuzkoa Eskola Atletismoko txapelketak Unben bizi izan zuen lehen saioa

Aurreko domekan jokatu zen Unbenko pistan guztira bost saio izango dituen txapelketa horretako lehenbizikoa, alebin eta infantil mailetakoa bosna probekin. Bertan parte hartu zuten Eibarko Klub Deportiboko atletek zazpi domina eskuratu zituzten guztira: alebinetan, Miren Garcia onena izan zen 150 metro hesietan, Uxue Astarloak bigarren amaitu zuen bitartean; eta infantiletan, pertiga jauzian, Unai Alvarez eta Maialen Zenarruzabeitia bigarren tokian sailkatu ziren, eta podiumaren hirugarrenera heldu ziren Marco Malaga eta Elene Beitia, jabalina jaurtiketan Haizea Magunazelaia ere hirugarren toki horretan sailkatzen zen bitartean.


Eibarko Deporrek atletismo taldeak antolatutako jardunaldia arrakastatsua izan zen oso 500 lagunetik gora bildu zuen ekitaldian, “lan horretan jardun zuten atleta fede-



ratu eta atletismo eskolako guraso guztiei esker”. Txapelketa horretako bigarren saioa Arrasaten jokatuko da etzi. Bezperan, bihar, Deporrek federatuek taldekako txapelketan hartuko dute parte Gasteizen.

Eibar100 trail erronka antolatu dute

Lehiakorra izango ez den, ezta mendi-lasterketa ere, proba antolatu du Kalamua Korrikalari Taldeak hemendik hilabete baterako. Eibar100 erronka sei etapatan banatu dute, bakoitza 15 eta 18 kilometro arteko luzerakoak, guztira aipatutako 100 kilometro horiek betetzeko moduan. Erronka maiatzaren 17ko



(barixakua) 22:00etan hasiko da eta hurrengo eguneko, maiatzaren 18ko, arratsaldeko 19:00etan amaituko. Guztira, beraz, 21 orduko epean bete beharko dute Eibar inguruko mendi garrantzitsuenak hartuko dituen ibilbide hori: tartean izango dira Kalamua, Urko, Egoarbitza, Galdaramiño...

Eibarko Klub Deportiboaren 100. urteurreneko egitarauaren parte izango den proban parte hartzeko izen-ematea apirilaren 30ean amaituko da. Arautegia, etapei buruzko informazio guztia eta izen-emateko galdetegia helbide honetan dituzue: <https://www.deporeibar.com/mendia/eu/eibar100-trail/>

Eibarko gomazko pala txapelketak asteburu betea izango du Astelenan

Euskal Jaiaren bueltan antolatutako Torneo aurrera doa, eta zapatuan (goiz eta arratsalde) eta domekan (arratsalde) Katedralak hainbat partidu hartuko ditu. Biharkoan, 09:00etatik aurrera, honako neurketak izango dira: Belarr-Argoitz vs Arkaitz-Ane Diez, Belamendi-Bikuña vs Arrizabalaga-Isasi, Txirlo-i-Barru vs Conde-Arrieta eta Amas-Gisasola vs Sarobe-Beton. Arratsalde, bestalde, 16:00etan hasita: Larra-Korta vs Egaña-Ariznabarreta eta Soria-Lombraña vs Azpilikueta III-Bustindui. Eta etzi, azkenik, 17:00etatik aurrera, atzeratutako partidua jokatu da, Egiburu-Irizar eta Soria-Lombraña bikoteen artean.

Inda Team-eko Egoitz Riosek borrokaldia irabazi zuen Barakaldon

Aurreko zapatuan Stop Bulling elkarteari laguntzeko asmoz Barakaldon jokatuak Apocalipsis Fight Day jaialdi benefikoan, gure herriko Inda Team taldeko Egoitz Riosek hartu zuen parte. Ez hori bakarrik, irabaztea ere lortu baitzuen Pando Aisia kiroldegian hiru asaltora jokatu zuen borrokaldian. 75 kilotik beherakoenen arteko borrokaldi hori parekatua izan bazen ere, eibartarra Team Sariri klubeko Jhon Ander Yaguanoi baino gehiago izan zen, puntuetara gailenduz. Garai-pen bidetik jarraitzen du Indak.



Etxetik ezin gertuagoko mendi irteera 27an

Deporreko Mendi Taldekoek etxean egiteko irteera prestatu dute hilaren 27rako. Euskal Herriko Mendi Federazioaren 100. Urteurrenaren ospakizunen barruan kokatzen da, "Ehun urte, ehun mendi" izendatu duten ekintzaren barruan: "Euskal Herriko geografia osoan banatutako 100 klubetik gora Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako 100 tontor koreatuko dituzte. Eta Depor Urkora igoko da".

Apirilaren 27ko autobusik gabeko irteera hori 14 kilometrokoa izango da, Urkizun hasi eta Amañan amaitzeko. Ibilbidea honakoa: Eibar - Ixua - Aginaga - Urko gaina - Artarrai - Eibar.

44 mendizale Aizkorri

Kopuru horretako taldea osatu zuten Deporreko mendizaleek aurreko zapatuan egindako irteeran, Gipuzkoa eta Araba artean osatu beharrekoan. Zegamatik irten, Oria ibaia gora, Santi Epiritu baselizarantz jo zuen taldeak. San Adriango tunel ospetsua gurutzatuta, Aizkorriren tontorraren bila joan ziren jarraian, Arabako lurretan sartu aurretik. Iturriotzeko iturri oparoa zain izan zuten Araiara iritsi aurretik, hiru kilometrorra. Hidratatu beharra ere izan baitzuten beroegi egiten zuen egunean. 20 kilometrotik gorako ibilbidea ondo dago, ohituta egonda ere.

Jaz Triatloi Taldekoek Zuiako Duatloian

Bostehun lagunetik gora hartu zituen Murgiak denboraldiko proba garrantzitsuenetakoan. Zuiako Duatloi horretan, beroak baldintzatu eta oraindik gehiago gogortu zuen proban, 15 kilometro egin



zituzten antxintxiketan, ondoren beste 70 bizikleta gainean eta, amaitzeko, antxintxika egindako azken zazpi kilometroekin osatu zuten ibilbidea. Eibarko Triatloi Taldeko lau ordezkari saiatu ziren helmugara heltzen, eta eurretatik hiruk lortu zuten helburua. Pablo Zabalak 58. postuan amaitu zuen (3:48:02), Alex Higuera 89. ean (3:56:21) eta Roberto Gartzia 232. ean (4:23:41). Aitor Fernandez geratu zen helmugara iritsi barik.



186 txirrindulari izan ziren Beltran Sarian

Domeka goizean jokaturako VII. Eibarko Txirrindulari Elkartearen Saria - Beltran Sari Nagusiak parte-hartze ikaragarri izan zuen, ia 200 txirrindulari abiatu baitziren 68 kilometroko ibilbidea osatzeko asmoz. Eguraldi bikaina izan zuten lagun eta tropelean egin zuten ibilbide gehiena, kenduta azken kilometroak, hor hamar laguneko taldea osatu eta euren arteko es-

printak erabaki baitzuen garailea. Telleriarteko Ander Irizar izan irabazlea, Cafenasako Joritz Barberana eta Bolintxo Okindegiko Manex Larrañagaren aurretik. Aipatutakoek ordubete, 39 minutu eta 37 segundo behar izan zituzten Urkizuko helmugara iristeko, orduko ia 41 kilometroko batatzbestekoarekin. Cafe Dromedario Flotamet-entzat izan zen taldekako sailkapena.



SD Eibar-ko PC taldeak Errege Kopa jokatu du asteburuan Madrilen

SD Eibar Fundazioa burmuin-paralisisa dutenen taldea izako denboraldiko bidetik doa, eta irabazitako txapela berresteko asmoari eusten dio. Azken asteburuan Bartzelonako Vilanova i la Geltrú jokaturako Ligaren azken bi jardunaldien ondoren, eibartarrek 1. postuan amaitu dute, AMDDA Malagarekin berdinduta. Eibar-ek 9-3 irabazi zion Tenerife PC-ri eta fase horretako porrot bakarra jaso zuen, Hercules Paralimpicoarekin 2-1 galduta.

Liga amaierako play-offa Madrilen jokatu da maiatzaren 18an eta 19an, baina aurretik -asteburu honetan- Errege Kopa izango da jokoan zapatu honetan. Sailkatutako lau taldeen arteko lehian, goizeko 11:00etan Hercules Paralimpico izango dute aurkari eibartarrek, 13:00etan AMDDA Malagaren kontra jokatu dute, eta 19:00etan, torneoa itxiko duen norgehiagokan, Disport taldea gainditzen ahaleginduko dira.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila
Sporting Huelva - EIBAR (bihar, 16:00)

Gizonezkoen 2. Maila
EIBAR - Alcorcon (etzi, 16:15)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF
EIBAR B - Bizkerre B (bihar, 18:00)

Gizonezkoen 3. Maila RFEF
VITORIA - Beasain (bihar, 15:30)

Emakumezkoen Euskal Liga
EIBAR C - San Ignacio B (etzi, 17:45)

Erregionaleko Ohorezko Maila
Zumaia - EIBAR URKO (bihar, 16:00)

Erregionaleko Gorengo Maila
URKI ALKIDEBEA - Zumaia (bihar, 10:00)

Erregionaleko 1. Maila
EIBARTARRAK - Iraul (bihar, 12:30)

FOBALL-ZALETUA

- GastroGilda - Baserri (bihar, 09:00)
- Xania - Garajes Garcia (bihar, 10:30)
- BOJ - Adahi Eraieder (etzi, 09:00)
- Malape Taberna - L. Rueda (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gipuzkoako 3. Maila
Aldapeta - EIBARTARRAK (bihar, 16:00)

ESKUBALOA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila
MEK EIBAR - Shar Zaragoza (bihar, 19:00)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila
Indupim. Basauri - MEK EIBAR (bihar, 17:00)

SASKIBALOA

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila
EIBAR - Bosteko Iraul (etzi, 11:30)

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila
AZ Casa Rioja - ART. JUANTXO (bihar, 16:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila
Aloña Mendi - EIBAR B (bihar, 16:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila
Druch Hoops - EIBAR C (bihar, 20:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Maila Nazionala
URBAT - Waterpolo Malaga (bihar, 20:15)

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga
CW Sestao - URBAT B (gaur, 21:00)

Urgara Txingudi - URBAT B (bihar, 20:00)

Emakumezkoen Euskal Herriko Liga
Larraina Iruña - URBIK (bihar, 19:45)

PILOTA

Astelena frontoia (gaur, 19:00)
URKIAGA - Lizarralde (Oñati) -kadeteak-
IBARRA - Sarasua (Azpeitia) -jubenilak-
DEL REY - Aldazabal (Azkoitia) -kadeteak-

HIRU-TXIRLO

53. Gipuzkoako Txapelketa
Tiraldia Asola-Berrin (bihar, 17:00)



Biolurren Amillubi Taupaka proiektuaren aurkezpena

Arrate Kultur Elkartearen eskutik, *Amillubi*, *agroekologiatik askatasunera* Biolur elkartearen proiektuaren aurkezpena egingo da datorren barixakuan, 18:30ean elkarteko lokaletan. Herriz herri aurkezten ari diren proiektua abiatu dutenen berbetan, “eusten gaituen lurra ondasun kolektibo bilakatzeko helburuarekin abiatu dugu Amillubi Taupaka proiektua. Herritarrek elikagaiak eta nekazariak lurra izan ditzaten, elkarrengana batu garen mugimendu agroekologikoa gara, eta lurra babestea dugu helburu”. Horretarako, Gipuzkoan, Zestoako Iraeta auzoan dagoen Amillubi baserria eta bere lurra erosi nahi dituzte, “Amillubi ondasun kolektibo bilakatzeko”. Diotenez, “elikadura burujabetzarako bidean, lurrarekin errespetuzkoak diren laborantza proiektuak jarriko ditugu martxan Amillubin. Formazioa eta nekazariaren arteko saretzea sustatuko ditugu, eta nekazari berri gehiagoren bidelagunak izango gara”. Horri buruzko xehetasunak emango dituzte datorren asteko saioan. Informazio gehiago nahi izanez gero, <https://amillubi.eus/web-gunera> sartu.

Folk kontzertua Zaizoin



Biharko kontzertua antolatuko du Ez Dok-Zaizoi tabernan: 19:30ean hasiko da *Folk You!* izenekoa, Goitz Dutto (Moonshine Wagon) eta Will Mud (3 from hell) musikarien eskutik. Antolatutako kontzertuan folk, bluegrass, country... estiloko kantu ezagunak joko dituzte, Moonshine Wagon taldeko beste batzuekin tartekatuta.



Markos Gimenoaren karteletarako erakusketan inspiratutako kontzertua

Maite Arroita jauregi ‘Mursegok’ Gernikako Euskal Herria museoan ikusgai dagoen “Markos Gimenoaren karteletarako erakusketako kartel eta palindromoetan inspiratutako kontzertua emango du gaur. Erakusketak dagoen museoan arituko da, 19:00etan hasita. Kontzertu berezi eta bakarra izango da, joko dituen piezak gaurko emanaldirako propio sortu ditu eta.

Markos Gimeno ermuarrak euskaraz idatzitako palindromoen bilduma apirilaren 28ra arte egongo da ikusgai Euskal Herria Museoan, Joseba Sarrionandiak eta Esteban Montoriok zuzendu duten erakusketan. Sarrera dohainik da, baina erretserba egin behar da, 946 255 451 telefonoan edo euskalherriamuseoa@bizkaia.eus helbidera mezua bidalita.

Musika-lehiaketarako izen-ematea amaitzear dago



Udalak antolatu duen Izen-gabeak musika-lehiaketarako izen-ematea martitzenean amaituko da. Bi fase nagusi izango ditu lehiaketak: izena emandako talde eta bakarlari guztietatik finalistak aukeratuko dituzte, eta horiek zuzeneko emanaldiak egingo dituzte ekainean, Untzagan. Sari potoloak egongo dira irabazleentzat eta informazioa eta izena emateko orria [eskuragarri daude](http://eskuragarri.daude) Udalaren webgunean.



Helduendako kontaketa Virginia Imazen eskutik

Apirilaren 23a Liburuaren Nazioarteko Eguna dela eta, hori ospatzeko, Juan San Martin liburutegiak ahozko narrazio saio berezia antolatu du hurrengo egunerako, eguaztenerako. Helduentzat izango den saioa Virginia Imazen eskutik egingo da, 19:00etan, liburutegian bertan. *La domadora de sueños* izenburuko kontaketa gaztelaniaz izango da eta sarrera librea izango da.

Bestalde, Zapatuko Ipuinaren hurrengo saioa apirilaren 27an izango da: Patata Tropikalak *Ametsen mundua* izenburuko lana aurkeztuko du, 4-12 urte bitarteko umeentzat. Joan nahi dutenek aurretik izena eman beharko dute, eta astelehenean zabalduko da izen-ematea, Udalaren webgunean.



Pucciniren 'Tosca' operaren proiektzioa gaur arratsaldean

Gaur arratsaldeko 19:30etik aurrera Giacomo Pucciniren *Tosca* (*St. Margarethen Open Air*) operaz gozatzeko aukera izango da Coliseoko Antzokian. Austriako Sankt Margarethen im Burgenland-en grabatutako lana italieraz abestuta entzun ahal izango da, gazteleharazko azpigituluekin. Bertsio diferituaren proiektzioak bi orduko iraupena izango du.



Eibar BHI-ko ikasleen eta Eibarko Artisten Elkartearen lanak Portalean ikusgai

Aurreko barixakuan inauguratu zuten Portalean Eibar BHI-ko ikasleen "Lanaren fruitua" izeneko erakusketak, DBHko 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleek klasean egin dituzten lanekin. Erakusketa areto berean, Eibarko Artisten Elkartekoen erakusketa kolektiboa dago ikusgai. Apirilaren 28ra arte egongo dira zabalik biak, martitzenetik domekara, 18:30etik 20:30era.

"The British influence in our football" Ipuruako Merkatu Plazan

Bihar 12:00etatik aurrera, *The British influence in our football: Fred Petland and the Basque Children* erakusketa jasoko du Ipuruako Merkatu Plazak. Bertan aurreko urtean eta aurtun egin diren tailerretan bildutako posterrak ikusi ahalko dira. Gainera, haurren ahotsekin ingelesez egindako bideoa emango dute (euskaratzen joango dira), eta elkarrizketa egingo diote Chris Evans Galeseko kazetariari. Sarrera librea da.


Eibarko Musika Banda Coliseon




Eibarko Musika Bandak Coliseoko denboraldiari agur esango dio domekan, 12:30ean hasiko den kontzertuarekin. Andoni Vazquezek zuzenduta, pieza hauek joko dituzte: *Florentiner march* (J. Faelk), *Memorias de Africa* (J. De Meij), *Budapest impressions* (R. Kern), *Sinatra in concert* (J. Nowak) eta *Cugat's cocktail* (C.M. Peeters). Eguraldia lagun bada, hurrengo kontzertua kalean emango du Bandak: Torbio Etxebarria kalean izango da, maiatzaren 12an.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	8		7	9		
6				4		3
	1	3		6		
		9	8			
	5	1	2		3	8
				7	3	
			3	6	4	
4		6				1
		7	5		3	



soluzioa




soluzioa

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			7	6		
				1		3
			6	4	2	9
	2	4		7	3	5
1				8		
						6
	9	7	5			2
		6	7	2	9	
	7		1			
		9	3			

S U D O K U



L A B I R I N T O A

Apirilak 19/25

BARIXAKUA 19

BARIXAKUAK JOLASIAN

17:00/18:00 Jolasak, euskaraz, 2 eta 8 urte bitarteko umeentzat, ...eta kitto! Euskara Elkartek antolatuta. Torrekuako parkea.

OPERA

19:30 Giacomo Pucciniren "Tosca (St. Margarethen Open Air)" proiektzioa. 9 euro. Coliseo.



ZAPATUA 20

ERAKUSKETA

12:00 'The British influence in our football: Fred Petland and the Basque Children' erakusketa. Sarrera librea. Ipuruako Merkatu Plaza.

BISITA GIDATUA

17:00 Doako bisita gidatua, erakusketa iraunkorrera. Euskaraz (gaztelaniaz, **18:30**ean). Armagintzaren Museoa.

MUSIKA

19:30 Folk You! Goiatz Dutto & Will Mud. Ez Dok-Zaizoi taberna.



DANTZA

20:00 "Distirak" (Dantza konpainia). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



DOMEKA 21

MUSIKA

12:30 Eibarko Musika Bandaren kontzertua. Doan, gonbidapenarekin. Coliseo.



ASTELEHENA 22

KANTUAK

19:00 Kantu saio irekia. Euskal kanta tradizionalak. Arrate Kultur Elkartea.

MARTITZENA 23

HITZALDIA

18:30 "Gatazka armatuak, bakea eta garapena", Itziar Mujika Chaoren eskutik. Andretxea.



EGUAZTENA 24

IPUIN-KONTAKETA HELDUENTZAT

19:00 Ahozko narrazio saioa, helduentzat, Virginia Imazen eskutik. Juan San Martin Liburutegia.



DANTZA

19:00/21:00 Larrain-dantza errepasoa, Euskal Jairako. Arrateko Andra Mari ikastetxea.

EGUENA 25

HITZALDIA

10:00/12:00 "Velazquez: bizitza, pintura eta bitxikeriak". Hizlaria: Jose Ignacio Olabe. Sarrera librea. Armeria Eskola (areto nagusia).

ODOL-EMATEA

16:50/20:50 Odola ematera joateko saioa, odol-emaiementzat. Untzaga jubilatutxetxea.

ARTEAN-IX IKASGUNE FEMINISTA

18:00 Sormen tailerra, Cristina Chiquin Rodriguez, Guatemalaiko argazki kazetariarekin. Andretxea.



DOKUMENTALA

18:00 "Eskuz esku. LAB zabaltzen". Dokumentalaren proiektzioa eta solasaldia. Portalea.



ILLUNABARRIAN

19:00/20:30 Magia ikastaroa, helduentzat (16 urtetik gora), Imanol Ituiñorekin. Izen-ematea: www.etakitto.eus web gunearen bidez edo banaketa.etakitto@gmail helbidera idatzita. 5 euro (4 euro bazkideentzat). ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoitza.



ERAKUSKETAK

Apirilaren 28ra arte:
- "LANAREN FRUITUA", Eibar BHI-IES Eibarko ikasleen artelanak. (Portalea).
- EIBARKO ARTISTEN ELKARTEA. (Portalea).

Maiatzaren 8ra arte:
- "LGTBIQ+fobia gorroto delitu eta diskurtsoak". (Andretxea).

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **20an:** 22:30
- **21ean:** 20:00
- **22an:** 19:30

"Puan"
KOMEDIA



2023/Argentina/111'
Zuzendaria: Benjamin Naishat
Aktoreak: Leonardo Sbaraglia, Marcelo Subiotto, Julieta Zylb.
Ikastetxeak/Unibertsitatea

2 ARETOA

- **20an:** 22:30
- **21ean:** 17:00, 20:00
- **22an:** 19:30

"Las cosas sencillas"
KOMEDIA



2023/Frantzia/95'
Zuzendaria: Eric Besnard
Aktoreak: Lambert Wilson, Grégory Gadebois, Marie Gillain
Drama/Bizitzaren hausnarketa

ANTZOKIA

- **20an:** 17:00 (1. Areta), 19:45 (1. Ar)
- **21ean:** 17:00 (1. Aretoa), 20:00
- **22an:** 19:30

"Monkey Man"
AKZIOA




2024/AEB/113'
Zuzendaria: Dev Patel
Aktoreak: Dev Patel, Sharlto Copley, Pitobash
Thriller-a/Drama/Mendekua

ANTZOKIA

- **20an:** 17:00 (2. Aretoa)
- **21ean:** 17:00

"Godzilla y Kong"
FIKZIOA



2024/AEB/115'
Zuzendaria: Adam Wingard
Aktoreak: Rebecca Hall, Kaylee Hottle, Dan Stevens
Zientzia-fikzioa/Munstroak



 <p>FUNEUSKADI Funerariak</p>	 <p>FUNERARIA MUGICA Funerariak</p>
 <p>TANATORIO EIBAR</p>	 <p>TANATORIO MUGICA</p>
<p>24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951 www.funeuskadi.com</p>	
<p>Eibar: Otaola, 27</p> <p>Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20</p>	<p>Elgoibar: Kisillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olaoko hilerriaren ondoan)</p> <p>Ermuako bulegoa: Marques de Valdespina, 16</p>
<p>Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leloa · Getxo · Sestao Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao</p>	



Juan Anchia Emparanza

4. URTEURRENA
2020/04/14

"Beti eramango zaitugu bihotzean"



- ETXEKOAK -

943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...**eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **LIZAR** Aranberri Zubizarreta, republika egunian 11 urte bete zenuazena-eta! Bizitza pozten deskuzu, segi holako majo!



Zorionak, **OIER** Errekalde Ares, atzo 9 urte egin zenuazena-eta. Patxo haundi bat etxekeu eta, batez be, Iratiren partez.



Zorionak, **JUNE**, astelehenian urtetxua egin zenuan-eta! Patxo potolo bat etxekeu partez.



Zorionak, **IRATI**, martitzenian 5 urte beteko dozuz-eta. Musu erraldoi bat famelixa guztiaren partez. Illargiraiño eta buelta maite zaittugu!



Zorionak, **ELIXE!!!** Domekan 3 urtetxo beteko dozuz-eta!!! Musu erraldoi bat gure txikitiñari!!! Batez be, Pello eta Txominen partez.



Zorionak, **LUCIA!** Eguaztenian 7 urte egingo dozuz, neska haundi! Patxo haundi bat etxekeu eta, batez be, Pabloren partez!



Zorionak, **OIHE-NART!** Atzo 13 urte bete zenuazena-eta!!! Patxo haundi bat amatxo, aita eta Aioraren partez.



Zorionak, **LUKEN**, gaur 12 urte betetzen dozuz-eta!! Besarkada eta patxo haundi bat famelixa guztiaren partez, txapeldun!!



Zorionak, **MARKEL** Lasuen, domekan 12 urte beteko dozuz-eta. Patxo potolua Aitaxo, Amatxo eta, batez be, **ANNE**ren partez. Asko maite zaittugu.



Zorionak, **NAIA**. 12 urte zorionak elkarrekin ospatzen!!!! Musu haundi bat Markel, Anne eta Iratiren partez.

Juan Jose Araolaza Lahidalga
(...eta kitto! Euskara Elkarteko lehenengo presidentea)

2024/04/11

Gure atsekabea eta elkartasuna haren senide eta lagunei



eta kitto!
euskara elkartea



Juan Jose Araolaza Lahidalga

2024/04/11

"Eskerrik asko, bihotzez, eman diguzun guztiagatik"



- ETXEKOAK -



Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.2. Errentan

- Apartamentu edo pisu txikia alokatuko nuke Eibarren. 688666220.

3. LOKALAK

3.2. Errentan

- Lokala alokagai I. Ojanguren lean. 40 m2. Komunarekin. Aproposa bulegorako, almazenerako, e.a. Prezio onean. 676556691. Vicente.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Neska eskaintzen da nagusiak (habilitazioarekin) edo umeak (habilitazioarekin) eta esperientziak eta esperientzia. 604120104.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (baita gauze eta ospitalean ere) eta pegorak garbitzeko. 679912841.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin) eta garbiketarako egiteko. Interna. 631055859.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 631545774.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. Esperientzia. 631759107.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 602335470.
- Emakumea eskaintzen da umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 625200924.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 612201719.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko. 631537430.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko: etxean, obretan... 638421827.
- Emakumezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin ere). Baita umeak zaintzeko uztailean eta abuztuan. Orduka. 636841158.
- Neska eskaintzen da garbiketarako egiteko: etxeak, tabernak, pegorak... 688758630.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. 640050714.
- Emakume euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. 634651895.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (titulazioarekin). Externa. 677259560.

4.2. Langile bila

- Ermuko hortz-klinika baterako auxiliarra edo administraria behar da uztailearen amaiera arte (baja bat kubritzeko). Goizez. 653184885.
- Ermuko Aierra Estilistak ileapaintzailea behar du. Esperientzia eta lanerako gogoarekin. 626524949. Bidali curriculum: ayerravg@gmail.com
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Hobe esperientzia badu. 661955980.
- Elgoibarko enpresa batek biltegian eta banaketan egun erdiz lan egiteko pertsona behar du, maiatzetik abuztura. Gidabaimena ezinbestekoa da. Bidali curriculum: hornikuntza@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitatea prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.4. Bestelakoak

- Gurgildun aulkia bilatzen dugu. 665318298.

ATE IREKIAK



APIRILAK 24
GOI MAILAKO
ETA ERDI MAILAKO
ZIKLOAK

17:00



IKASTETXE PUBLIKO DOAKOAK



F

- EGOKITZAPEN FISIKOA
- GIZARTE ETA KIROL IRAKASKUNTZA ETA ANIMAZIOA



M

- NAZIOARTEKO MERKATARITZA
- GARRAIO ETA LOGISTIKA
- MERKATARITZA JARDUERAK



A

- ADMINISTRAZIOA ETA FINANTZAK
+ Administrazioa eta Finantzak eskaintza partziala arabiakidez.
- ADMINISTRAZIO KUDEAKETA



I

- SAREKO INFORMATIKA SISTEMEN ADMINISTRAZIOA
- WEB APLIKAZIOEN GARAPENA
- PLATAFORMA ANITZEKO APLIKAZIOEN GARAPENA
- SISTEMA MIKROINFORMATIKOAK ETA SAREA



ESPEZIALIZAZIOAK
ZIBERSEGURTASUNA
INFORMAZIOAREN
TEKNOLOGIEN
INGURUNEETAN

www.uni.eus

Otaola Hiribidea, 29 | 20600 Eibar, Gipuzkoa | 943 89 92 11 | itakalritza@uni.eus | uni.eus

Egin zaitez bazkide!

zarelakogara

Apirilak
5



Eibar FTren partidua ikusteko 2 sarrera

Apirilak
19



Bazkaria Belaustegi jatetxean

Maiatzak
3



Fruita-otar ederra, El Cantón de la Avenidaren eskutik

Maiatzak
17



Roomba aspiradora

Maiatzak
31



Bazkaria Txurruka jatetxean

Ekainak
7



Opri-bonua Hotel Talasoterapia Zelaian

eta kitto!
euskara elkarteak

943 20 09 18 / elkartea@etakitto.eus
www.etakitto.eus

zarelako **para**



Etorkizuna euskaraz eraiki nahi dugulako

Egin zaitez bazkide!